

# → AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 22. atala

DATA: 2024/11/22

## GUREAN

### CRISTINA ENEA PARKEA

Cristina Enea Fundazioaren hezkuntza eta sentsibilizazio programak, oro har, herritarrei zuzenduta badaude ere, arreta berezia eskaini nahi diete ikastetxeei bideratutako ekimenei.

Horregatik, urtero bezala, gu ere proposamen honetan parte hartzera apuntatu egin gara. Atzo HHko 4 eta 5 mailako ikasleek izugarri disfrutatu zuten parkean. Naturaz gozatzeaz gain, munduari bira eman zioten eta krokodiloen, dordoken, kanguruen eta pinguintoen azalean jarri ziren eta haien ohiturak ezagutu zituzten. Datorren urtean, esperientzia errepikatzeko prest gaude!



## GURE INGURUAN

### KANDELAK DE KRISEILUA-FAMILIENTZAKO TAILERRA

**NON: IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA**  
**NOIZ: 2024/11/23**



Erleek orokorrean duten garrantziari buruz hausnartuko dugu eta, gainera, baserrian erleekiko zituzten sinismenak ezagutuko. Horrez gain, kriseilu ondare-pieza zer den eta zertarako erabiltzen zen ikasiko dugu eta gure kandela eta kandela eustekoa sortuko ditugu.



Harremanetarako telefonoa:  
618 00 41 31 / 943 72 29 78 / 943 72 51 07

### DANTZA PLAZAN

**NON: OIARTZUN / DONEZTEBE PLAZA**  
**NOIZ: 2024/11/24 12:00**

Oiartzungo Doneztebe plazan, euskal dantza herrikoiak ikusi eta gozatzeko aukera izango duzu, izan ere, Soinuenea, herri musikaren txokoak antolatuta, euskal dantza tradizionalen ikuskizun paregabea eskainiko da bertan. Ekitaldia familia osoarentzat da aproposa. Hurbil zaitetz dantzatzera eta gure kultura eta tradizioa ezagutzera.

